

## 1.8. Erantzutegiaren ezaugarriak

### 1.8.1. Erantzutegiaren egitura

Erantzunak inkesta lekuen arabera zerrendatuak dira, eta inkesta lekuak berak, herrialdeka. Beti modu berean. Inkesta leku bat ez bada agertzen zerrendan, horrek esan nahi du galdera horretan erantzunik ez dela jaso herri horretan.

Herrialdeen ordena, bai eta haien barneko inkesta lekua ere, mendebaldetik ekialdera doan segida bati jarraitzen zaizkio. Horrela, lehenik Bizkaiko herriak agertzen dira, eta haietan, lehenbizikorik, *Getxo*, *Leioa*, *Zollo*... Azkenik Zuberoako inkesta lekuak aurkitzen dira ekialdean urrunenik daudenak agertzen direlarik bukaeran: *Ürrüstoi*, *Barkoxe*, *Eskiula*.

### 1.8.2. Erantzun motak

Bi erantzun mota aurki daitezke erantzutegian: **zuzeneko erantzunak** lehenik, eta **erantzun proposatuak** bestetik. Azken hauek, berri emaileak ez ditu berak eman lehen aldian, baina proposatu izan zaizkiolarik onartu ditu, eta herrikotzat jo. Erantzuna agertzen da berri emaileak berak eman duen forman.

Bigarren mota horretako erantzunak letra etzanetan eta aurrean izarñoa dutela agertzen dira erantzutegietan. Adibidez, 86720 galderan, Zeanurin, bi erantzun jaso dira: [aštótáti] eta [\*mutkoyandik]. Lehena zuzeneko erantzuna izan da, eta bigarrena, aldiz, erantzun proposatua.

### 1.8.3. Erantzunen forma

Erantzunak ortografia fonetikoan agertzen dira (ikus taula fonetikoa XXIII. orrialdean) eta ahalaz hizka emanak dira; esapide berezietan ez bada, ez da esaldirik agertzen erantzunen zerrendetan.

Hitzak beren osoan utzi dira aldakuntzarik egin gabe. Hitz mugagabeen bildu denean, forma hari eman zaio lehentasuna erantzutegian; bestela, hitza bere hartan utzi da, artikularekin edo kasu marka batekin agertzen zelarik adibidez. Horrelakoetan forma markatua dela adierazteko, eta ez lexema hutsa, (*mark.*) erantsi da parentesien artean erantzunaren gibelean. Ikur bera erabili da atzizki hutsaren forma bildu ez denean. Adibidez, 86070 galderan, Aia herrian [aláβenak] (*mark.*) erantzuna ere agertzen da, erantzun hau bere aldaera mugatuan bildu delako.

Erantzun gisa jaso dira zerbait aldakuntza zuten forma guztiak. Adibidez, berri emaileak bi erantzun eman dituelarik, forma batean sabaikari bat sartuz, eta bestean ez, bi erantzunak bildu dira.

Kontuan har bedi, forma batek, markatua izanik edo ez, testuinguruaren arabera itxura desberdinak izan ditzakeela. Adibidez, bukaerako "-n" ondoren agertzen den "b-" batek eraginik [-m] izan daitekeela [aláβaim] (Mezkiritzen 86080 galderari dagokion mapan ikus daitekeenez); testuinguruak, halaber, hitzaren hasieran ere eragin lezake: izan dadin diptongoak sortuz edo hotsak aldatuz. Ohar honek azentu kontuentzat ere balio izan dezake; izan ere, erantzutegian agertzen den erantzuna testuinguru batean emana izan da, eta testuinguru horrek eragin izan dezake azentuan.

Bestalde, erantzunaren aldaera bat baino gehiago bildu izan denean, bildu diren guztiak ezarri dira erantzutegian. Horrela, irakurleak 86080 galderan, adibidez, Otxandion erantzunaren bi aldaera elkarren ondoan kausituko ditu: [aláβen] eta [aláβien].